

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

170/2019 Foru Agindua, apirilaren 2koa. Onestea deialdia egitea eta kreditua gordetzea, aparteko almazariak erosteko 2019rako laguntzetarako

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 29ko 31/2010 Foru Dekretuaren bidez (azaroaren 27ko 70/2012 Foru Dekretuz aldatua), aparteko almazariak erosteko laguntzak emateko oinarriak onetsi ziren.

Aipatutako dekretu arautzaile horren 9. artikulua arabera, urtero laguntza deialdi bat onetsiko da, eta han adieraziko dira eskaerak aurkezteko epea eta dirulaguntzak emateko erabiliko diren kredituak.

Beharrezkotzat jotzen da aparteko almazariak erosteko laguntzen 2019rako deialdia onestea.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. - Aparteko almazariak erosteko 2019rako laguntzen deialdia onestea. Hona hemen xehetasunak:

– Eskaerak aurkezteko epea: hamabost egun natural, foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

– Kreditu erreserba: 3.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko ekitaldiko gastu aurrekontuaren "Zaldi aziendak hobetzeko laguntzak" izeneko 40.1.02.43.00.770.00.01 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 19.5.19.105.1402/000).

– Dirulaguntzen zenbatekoa: gehienez ere, 3.000,00 euro emango dira dirulaguntzetan deialdi honen barruan, eta dagokionean xedatu eta ordainduko zaie diru kopuru hori deialdiaren oinarri arautzaileek eskatutako betekizunak betetzen dituzten laguntza eskatzaileei.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 2a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE